

Sarrera

Inoiz ez zaizu gertatu zure tailerrean zaudela, tresna bat behar izatea eta haren bila joatean tresna egon beharko litzatekeen lekuan ez egotea? Eta gero, bila joan eta nork duen galdetzean, arazoak izan dituzula zure kideekin? Guk Mendizabaleko mekatronika industrialeko ikasleak gara, eta egoera hau askotan bizi izan dugu. Hau ezin da nolabait hobetu?

Etiketetik ideia ezin hobe proposatzen dugu. Hemendik aurrera beti jakingo duzu nork eta noiz hartu duen edozein tresna. Horretarako, tresna-kutxa adimendun bat diseinatu dugu, eta baimendutako erabiltzaileak bakarrik sar daitezke bertara. Erabiltzaile bakoitzak pasahitz bat izango du, kutxan sartzeko. Bakoitzak pasahitz bat duenez, gure kutxa zer tresna hartzen den eta noiz identifikatzeko gai da.

Horrek guztiak lantegiko langileen arteko gatazkak saihestuko ditu, zure tailerreko lan-giroa hobetuko da eta tailerraren errendimendua ere hobetuko du.